# Xedapen Orokorrak

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### Zk-320

AGINDUA, 2001eko abenduaren 11koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Lanbide Hastapeneko programa bateko bigarren mailan matrikulatuta dauden ikasleak maila ertaineko heziketa-zikloetara sartzeko proba arautzen duena.

LOGSEk, 32.2 artikuluan esaten du hautagaiek sarbide-proban egiaztatu beharko dutela maila ertaineko heziketa-zikloak aprobetxamendu onarekin ikasteko adina ezagutza eta trebetasun dutela.

Apirilaren 29ko 97/1997 Dekretuak (1997-05-07ko EHAA) Euskal Autonomia Erkidegoan Lanbide Heziketako irakaskuntzaren ezarpena eta dagozkion tituluei buruzko jarraibideak arautzen ditu, urriaren 3ko Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako 1/1990 Lege Organikoaren 4. kapituluan ezarritakoaren arabera, eta tituluei buruzko jarraibideak eta dagozkien lanbide heziketako gutxieneko irakaskuntzak ezartzen dituen maiatzaren 7ko 676/1993 Errege Dekretuari jarraiki (1993-05-28ko EHAA).

Aipatutako Dekretu horretako 4. artikuluan heziketa-zikloetara sartzeko baldintzak ezartzen dira:

Maila ertaineko heziketa-zikloetara sartzeko, ezinbestekoa da Bigarren Hezkuntzako titulua izatea.

Hala ere, urriaren 3ko Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako 1/1990 Lege Organikoaren 32.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, aurreko atalean esandako titulazioa izan gabe ere sartu ahal izango da Lanbide Heziketako heziketa-zikloetara, baldin eta horretarako ezarritako proba bat gainditzen bada. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak arautuko du proba hori.

Apirilaren 24ko 72/2001 Dekretuak, gizarte–bermeko programetan jasotako heziketa–ekintzen funtsezko alderdiak ezartzeko denak, III. kapituluaren 6. artikuluan, Lanbide Hastapeneko programak bi ikasturtetan garatuko direla adierazten du. Lehenengo ikasturteak mila orduko iraupena izango du. Lanbide Hastapeneko bigarren ikasturtean lehenengoan ikasitakoa sakondu eta zabaltzeko fase bat antolatuko da, bai eta enpresetako praktikak ere. Bigarren ikasturte hori, Lanbide Heziketako maila ertaineko heziketa-zikloetara

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### N°-320

ORDEN de 11 de diciembre de 2001, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se regula la prueba de acceso a Ciclos Formativos de Grado Medio para los/las alumnos/as que se hallen matriculados en el segundo curso de un programa de Iniciación Profesional.

La LOGSE, en su artículo 32.2 dice que, a través de la prueba de acceso, el/la aspirante deberá acreditar para el acceso a los Ciclos Formativos de Grado Medio, los conocimientos y habilidades suficientes para cursar con aprovechamiento dichas enseñanzas.

El Decreto 97/1997 de 29 de abril (BOPV 7-5-1997) establece las enseñanzas de Formación Profesional y las directrices sobre sus títulos y dispone su implantación en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, a tenor de lo dispuesto en el Capítulo cuarto de la Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo, y el Real Decreto 676/1993 de 7 de mayo (BOE 28-5-93), por el que se establecen las directrices generales sobre títulos y las correspondientes enseñanzas mínimas de Formación Profesional.

En este Decreto, así mismo, se determina en el artículo 4.º el acceso a los Ciclos Formativos:

Para acceder a los Ciclos Formativos de Grado Medio será preciso estar en posesión del título de Graduado en Educación Secundaria.

No obstante, de acuerdo a lo establecido en el artículo 32.1 de la Ley Orgánica 1/1990, de 3 octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo, se podrá también acceder a los Ciclos Formativos de Formación Profesional, sin la titulación a que se refiere el apartado anterior, tras la superación de una prueba, cuya regulación será establecida por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

El Decreto 72/2001, de 24 de abril, por el que se establecen los aspectos esenciales de las acciones formativas que se integran en los Programas de Garantía Social, en el Capítulo III, artículo 6, indica que los programas de Iniciación Profesional se desarrollarán a lo largo de dos cursos escolares. El primer curso tendrá una duración en torno a mil horas de duración. En el segundo curso de Iniciación Profesional, se organizará una fase de profundización y extensión de los aprendizajes realizados en el primer curso, otra fase de prácticas en em-

sartzeko proba prestatzeko fase batekin osatu ahal izango da.

Lanbide Heziketako heziketa-zikloetara sartzeko proba arautzen duen 1998ko martxoaren 10eko Aginduak, 2. artikuluaren 2.1 atalean, 5. paragrafoan, honako hau adierazten du: gizarte-bermeko programa ikasi duten eta dagokion hezkuntza-administrazioak egindako ziurtagiri-bidez programa hori gainditu dutela egiaztatzen duten ikasleei dagokienez, epaimahaiak ziurtagiri horietan adierazitako emaitzak kontuan hartuko ditu probaren atal bakoitza ebaluatzeko.

Hori guztia kontuan hartuta, honako hau

XEDATZEN DUT:

*1. artikulua.*– Agindu honen helburua hauxe da: Lanbide Hastapeneko programa bateko bigarren ikasturtean matrikulatuta dauden ikasleak maila ertaineko heziketa-zikloetara sartzeko proba arautzea.

*2. artikulua.*– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, urtero maila ertaineko heziketa-zikloetara sartzeko proba baten deialdia egingo du, aurreko artikuluan aipatutako ikasleei zuzenduta. Probaren data eta lekua deialdi bakoitzean zehaztuko dira.

*3. artikulua.*– Proba horretan parte hartzeko izen-ematea Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetan eta itunpekoetan sartzeko eskabidearen bidez egingo da (otsailaren 4ko 14/1997 Dekretua, ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan ikasleak onartzeko prozedura arautzen duena), urtero ezarritako epean. Eskabidean, aukeratutako heziketa-zikloa adierazi beharko da.

*4. artikulua.*– Lehenengo artikuluan aipatutako ikasleei dagokienez, hau da, sarbide zuzena egiteko baldintza akademikoak bete ez arren maila ertaineko heziketa-zikloetara sartu nahi duten eta aurreko paragrafoan aipatutako izen-emateko zerrendetan agertzen diren ikasleei dagokienez, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak eta Lanbide Heziketakoak antolatuko dute horientzako sarbide-proba.

*5. artikulua.*– Sarbide-probak prestatzeko, ebaluazio-irizpideak ezartzeko eta probak zuzentzeko, epaimahaiak eratuko dira. Epaimahaietako partaideak, Hezkuntza Ikuskatzaileen kidegoko edo Irakasleen kidegoetako jarduneko karrerako funtzionarioak izango dira.

1.– Epaimahai bakoitzeko kideak honako hauek izango dira:

– Epaimahaiburua: Hezkuntza Ikuskatzaileen kidegoko karrerako funtzionarioa izango da, edo kidego horretan zerbitzu-eginkizunetan aritzen den norbait.

presa y podrá completarse con una última fase de preparación para la prueba de acceso a los ciclos formativos de grado medio de formación profesional.

La Orden de 10 de marzo de 1998, por la que se regula el acceso a Ciclos Formativos de Formación Profesional, en el artículo 2, apartado 2.1, párrafo quinto, dice que para los/las alumnos/as que hayan cursado un Programa de Garantía Social, y acrediten haberlo superado mediante certificación expedida por la administración educativa correspondiente, el tribunal tendrá en cuenta los resultados expresados en dichas certificaciones al evaluar cada una de las partes de la prueba.

En su virtud,

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Esta Orden tiene por objeto regular la prueba de acceso a Ciclos Formativos de Grado Medio para los/las alumnos/as que se hallen matriculados en el segundo curso de un programa de Iniciación Profesional.

*Artículo 2.*– El Departamento de Educación, Universidades e Investigación, podrá convocar anualmente una prueba para el acceso a los Ciclos Formativos de Grado Medio para el alumnado descrito en el artículo anterior. La celebración de la prueba se realizará en el lugar y fecha que se determinen.

*Artículo 3.*– La inscripción para concurrir a la citada prueba de acceso, se efectuará mediante la solicitud de admisión en centros públicos y concertados del País Vasco (Decreto 14/1997 de 4 de febrero, por el que se regula la admisión de alumnos/as en los centros públicos y privados concertados del País Vasco), en los plazos que anualmente se determinen. En ella se indicará el Ciclo Formativo al que se quiere acceder.

*Artículo 4.*– Las Direcciones de Innovación Educativa y de Formación Profesional organizarán la prueba de acceso para los/as alumnos/as que, indicados en el artículo 1, quieran acceder a los Ciclos Formativos de Grado Medio sin los requisitos académicos exigidos para el acceso directo y que figuren en las relaciones de alumnos/as inscritos/as a las que se refiere el párrafo anterior.

*Artículo 5.*– Para la elaboración de las pruebas de acceso, el establecimiento de los criterios de evaluación y la calificación de las mismas se constituirán tribunal/es, que estarán compuestos por funcionarios/as de carrera en activo de los Cuerpos Docentes o del Cuerpo de Inspectores de Educación.

1.– Cada tribunal estará integrado por:

– Un(a) presidente(a), que deberá ser funcionario/a de carrera del Cuerpo de Inspectores de Educación o estar desempeñando estas funciones en comisión de servicios.

– Lau epaimahaikide: Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoetakoak izan behar dute.

Epaimahaiak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan aritzen diren irakasleen artean aholkulari espezialistak izendatzeko eskatuko du, baina probaren ezaugarriek hala eskatzen badute bakarrik.

2.– Hezkuntza Ikuskaritzak epaimahaiak osatuko dituzten epaimahaiburuak, epaimahaikideak eta aholkulariak proposatuko dizkie Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Lurralde Ordezkaritzei, eta aukeratutakoak probak egingo diren institutukoak izaten ahaleginduko da.

*6. artikulua.–* Proba osatzen duen atal bakoitzaren balorazioa gai/ez gai kalifikazioaren bidez adieraziko da. Emaitza orokorrari dagokionez, gai izango da atal guztiak gainditu dituena, eta ez gai gainditu ez dituena.

Proba gainditu dutenei egiaztagiri bat emango zaie (Agindu honetako I. eranskinean agertzen da horren eredua). Egiaztagiri hori, Espainia osoan izango da baliagarria sarbidea lortzeko, baldin eta heziketa-zikloari dagozkion titulua eta irakasgaiak aldatzen ez badira.

Epaimahai bakoitzak proben ebaluazioari buruzko akta bakarra egingo du, eta probak egiten diren ikastetxeko Idazkaritzak ariketak gordeko ditu, bai eta ikasleen emaitzak eta espedienteak ere.

*7. artikulua.–* Proben edukiaren erreferentzia Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako arloetako helburu orokorrak izango dira (ekainaren 21eko 213/1994 Dekretua —1994-08-17ko EHAA—, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculuma ezartzen duena), eta maila ertaineko Berariazko Lanbide Heziketa aprobetxamendu onarekin ikasteko adina ezagutza eta trebetasun izatea baloratuko da proban.

Probaren edukiak bi zatitan banatuko dira:

– Soziolinguistika.
– Zientifiko-teknologikoa.

*8. artikulua.–* Maila ertaineko heziketa-zikloetara sartzeko proba bakarra izango da, aukeratutako zikloa edozein dela ere.

AZKEN XEDAPENA

Bai Lanbide Heziketako Zuzendaritzari, bai Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritzari ahalmena ematen zaie, Agindu honetan ezarritakoa garatzeko eta aplikatzeko beharrezko diren xedapen guztiak emateko.

Vitoria-Gasteiz, 2001eko urriaren 29a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
ANJELES IZTUETA AZKUE.

– Cuatro vocales, que deberán pertenecer a los Cuerpos docentes de Secundaria.

Excepcionalmente, cuando las características de la prueba lo aconsejen, el tribunal podrá proponer el nombramiento de asesores especialistas entre profesores/as que impartan materias en la Enseñanza Secundaria Obligatoria.

2.– La Inspección Educativa, propondrá a la/s correspondiente/s Delegación/es Territorial/es del Departamento de Educación, Universidades e Investigación el nombramiento de presidentes, vocales y asesores que constituirán los tribunales, procurando, siempre que sea posible, que pertenezcan a la misma localidad del instituto donde deban realizarse las pruebas.

*Artículo 6.–* La valoración de cada una de las partes de que conste la prueba se expresará con la calificación de apto(a)/no apto(a). La calificación global será apto(a) si se han superado ambas, y de no apto(a) en caso contrario.

La superación de la prueba se acreditará mediante el certificado cuyo modelo figura en el anexo I de esta Orden. La citada certificación tendrá validez como requisito de acceso en todo el Estado, manteniendo su vigencia siempre que no se modifique el título y las enseñanzas correspondientes al Ciclo Formativo.

Cada Tribunal levantará un acta única de la evaluación de las pruebas, y será la Secretaría del Centro donde se realicen las mismas la que custodiará los ejercicios, así como las calificaciones y los expedientes de los/as alumnos/as.

*Artículo 7.–* El contenido tomará como referencia los objetivos generales de las áreas de la Educación Secundaria Obligatoria (Decreto 213/1994 de 21 de junio BOPV 17/8/94, por el que se establece el currículo de la Enseñanza Secundaria Obligatoria) y valorará los conocimientos y habilidades suficientes para cursar con aprovechamiento la Formación Profesional Específica de Grado Medio.

Los contenidos de la prueba se agruparán en dos partes:

– Socio-lingüística.
– Científico-tecnológica.

*Artículo 8.–* La prueba de acceso a Ciclos Formativos de Grado Medio será única, independientemente del ciclo formativo al que se quiera acceder.

DISPOSICIÓN FINAL

Se faculta a la Dirección de Formación Profesional y a la Dirección de Innovación Educativa para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo y aplicación de lo previsto en la presente Orden.

En Vitoria-Gasteiz, a 29 de octubre de 2001.

La Consejera de Educación, Universidades e Investigación,
ANJELES IZTUETA AZKUE.

I. ERANSKINA / *ANEXO I*

HEZIKETA-ZIKLOETARA SARTZEKO PROBEN EGIAZTAGIRIA

Nik, ___________________________ ____________________, Heziketa Zikloetara Sartzeko Proben ________________ko Epaimahaiko idazkaria naizenez, honako hau EGIAZTATZEN DUT:
Heziketa-zikloetara sartzeko 20___ko _____________ren ___an egindako proben ebaluazio-aktan jasorik geratu denez, __________ ______________ ____________________k GAI kalifikazio orokorrarekin gainditu duela jarraian aipatzen diren erdiko mailako heziketa-zikloak ikasteko aukera ematen dion proba.
Proba ______________________ko institutuan egin da.

*CERTIFICACIÓN DE PRUEBAS DE ACCESO A CICLOS FORMATIVOS*

*Don/ Doña _____________________ _________________________________ Secretario/a del Tribunal de Pruebas de Acceso a Ciclos Formativos del Territorio ________________________________ CERTIFICO que:*
*Don/Doña _____________________ _________________________________ según consta en el Acta de Evaluación de Pruebas de Acceso a Ciclos Formativos celebradas el _____ de __________________ 20_____ en el instituto de __________________ _______________, ha superado con la calificación global de APTO/A, la Prueba de Acceso que le permite cursar los Ciclos Formativos de Grado Medio.*

............., 20...ko ............-aren ...-a
*............., a ... de .. ............ de 20...*

Ontzat emana / *V.ºB.º*
Epaimahaiburua / *El Presidente*

Epaimahaiko idazkaria
*El Secretario del Tribunal*

Zigilua / *Sello*

II. ERANSKINA / *ANEXO II*

HEZIKETA-ZIKLOETARA SARTZEKO PROBEN EBALUAZIO-AKTA / *ACTA DE EVALUACIÓN DE PRUEBAS DE ACCESO A CICLOS FORMATIVOS*

ERDIKO MAILA / *GRADO MEDIO*

Orri-zk. / *N.º de hoja*: ....

Lurraldea / *Territorio:* ..........................................

| | | | KALIFIKAZIOAK / *CALIFICACIONES* | | |
|---|---|---|---|---|---|
| ORDENA ZK.<br>*N.º DE ORDEN* | IZEN-ABIZENAK<br>*NOMBRE Y APELLIDOS* | ADINA<br>*EDAD* | P. SOZIO-LINGUISTIKA.<br>*P. SOCIO-LINGÜÍSTICA.* | P. ZIENTIFIKO-TEKNOLOGIKOA<br>*P. CIENTIFICO-TECNOLOGICA* | GUZTIRA<br>*GLOBAL* |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | gai / *apto*<br>ez gai / *no apto*<br>salbuetsia / *exento* | gai / *apto*<br>ez gai / *no apto* | gai / *apto*<br>ez gai/<br>*no apto* |

Akta honek .... ikasle ditu. Azkena ..................................................................................................................................................................................................................................................... da.

*Este Acta comprende .... alumnos, finalizando con el alumno ...................................................................................................................................................................*

..............en, 20....ko ...........ren ...(e)an, Epaimahaiko idazkaria
*El Secretario del Tribunal, ................ a .... de ........ de 20...*

O.E. Epaimahaiburua / *V.º B.º El Presidente* Epaimahaikideak / *Vocales*

Zigilua/*Sello*